

ATAUNGO
ORGANO
BARROKOAREN
NAZIOARTEKO IV. JAIALDIA

IV. FESTIVAL INTERNACIONAL DE
ÓRGANO BARROCO
DE ATAUN



UZTAILAK · 3 · 10 · 17 · DE JULIO

AGURRA

Atsegin handiz, aurten ere Ataungo Organo Barrokoaren Nazioarteko Jaialdiaren IV. edizioaren aurkezpena egitea dagokit. Atseginez eta baita poztasunez ere, Ataungo San Martin elizako organo barrokoaren soinua entzuten jarraitzen dugulako. Izan ere, hainbat adituren ustez altxor musikala den organo barroko hau entzuteko aukera izan ohi dugu kontzertuak antolatzen diren guztietan. Horretaz gain, musika tresna honek gure herria eta kultura atzerrira hedatzea ahalbidetzen digu, organoari nahiz gure herriari balioa emanaz. Hala, uztailean, Ataungo herria musika eta kultura erreferente bihurtuko da berriz ere, Gipuzkoan eta probintzia mugakideetan.

IV. edizio honetan, Mario Ciferri italiar organista, Alqhai Consort sevillako taldea eta Gabriela Eibenová eta Adam Viktora ahots eta organo txekiar bikotea entzun ahal izango ditugu.

Gonbidatuta zaudete, beraz, Ataungo Organo Barrokoaren Nazioarteko Jaialdiaren laugarren edizioaz gozatzera; ongi etorriak izango zarete.

SALUDO

Por cuarto año consecutivo tengo el placer de redactar estas líneas de presentación de la IV edición del Festival Internacional del Órgano Barroco de Ataun. Placer y satisfacción porque estamos consiguiendo que el órgano barroco de la Iglesia de San Martín de Ataun esté aportándonos su maravilloso sonido. Este órgano barroco, denominado por muchos expertos como un tesoro musical, además de ofrecernos la posibilidad de disfrutarlo cada vez que se organizan conciertos nos permite también proyectar nuestro pueblo y su cultura al exterior, por lo que conseguimos poner en valor tanto el órgano como nuestro pueblo, haciendo que durante el mes de julio Ataun se convierta en referencia musical y cultural tanto en Gipuzkoa como en las provincias limítrofes.

Esta IV edición nos permitirá disfrutar del organista italiano Mario Ciferri, del conjunto sevillano Alqhai Consort y del dúo de voz y órgano compuesto por los checos Gabriela Eibenová y Adam Viktora.

Disfrutemos de esta cuarta edición del Festival Internacional del Órgano Barroco de Ataun, estáis todos invitados, seréis bienvenidos.

Bittor Oroz Izagirre

Ataungo alkatea
Alcalde de Ataun

UZTAILA JULIO

KONTZERTUAK
CONCIERTOS
a las 20:00 etan

TOURSEKO MARTIN DEUNAREN ELIZAN
IGLESIA DE SAN MARTÍN DE TOURS

3

Larunbata
Sábado

THOMAS OSPITAL, ORGANOJOLEA / ORGANISTA

10

Larunbata
Sábado

ALQHAI CONSORT

FAHMI ALQHAI, ZANGO BIOLAJOLEA / VIOLAGAMBISTA

RAMI ALQHAI, ZANGO BIOLAJOLEA / VIOLAGAMBISTA

ALBERTO MARTÍNEZ MOLINA, ORGANOJOLEA / ORGANISTA

17

Larunbata
Sábado

GABRIELA EIBENOVÁ, SOPRANO / SOPRANO

ADAM VIKTORA, ORGANOJOLEA / ORGANISTA

THOMAS OSPITAL, ORGANOJOLEA / ORGANISTA

Toccata quinta	GIROLAMO FRESCOBALDI (1583-1643)
Tiento sobre la letanía de la Virgen	PABLO BRUNA (1611-1679)
Diferencias sobre el canto llano del caballero	ANTONIO DE CABEZÓN (1510-1566)
Tiento de medio registro de mano derecha de primer tono	PABLO BRUNA (1611-1679)
Von der fortuna werd' ich getrieben	JAN PIETERSZOOM SWEELINCK (1562-1621)
Tiento de quarto tono a modo de canción	FRANCISCO CORREA DE ARAUXO (1584-1654)
Preludio y fugua en re menor	JOHANN SEBASTIAN BACH (1685-1750)
Tiento de falsas de segundo tono	P. BRUNA
Quatrième sonate	CARL PHILIPP EMANUEL BACH (1714-1788)
<i>Allegro assai</i> <i>Adagio</i> <i>Allegro</i>	
Batalla famosa	ANÓNIMO

THOMAS OSPITAL



11 urte zituela egin zuen debuta Aiherran (Baiona), jaioterrian. Hurrengo urtean Baionako Maurice Ravel Musika Kontserbatorioan sartu zen Françoise Dechicorekin pianoa ikasteko. Ondoren, Esteban Landart-ekin sakondu zituen organo-ikasketak. 2008an karrera amaierako lehen saria eman zioten, aho batez. Sebastián Wonner-ekin antzinako musikaren bideari ekin zion, eta klabezina, baxu jarraitua eta talde instrumentala ikasi zituen. 2008. urteaz geroztik organoa ikasten ari da Parisko Goi Mailako Kontserbatorioan Olivier Latry-rekin eta Michel Bouvard-ekin, inprobisazioa Philippe Lefebvre-rekin eta baita harmonia, baxu jarraitua, idazketa eta azterketa ere, zentro horretan bertan. Kontserbatorioko ikasketez gainera, Ziburuko San Bizente elizako organista titularra da, eta baita titularkidea ere Aubervillierseko Vertusko Andre Mariaren elizan. Thomas Ospitali izugarri gustatzen zaio organoen eraikuntzaren mundua, eta oso modu aktiboan egiten ari da Ziburuko San Bizenteko elizarako organo berriaren eraikuntza proiektuaren jarraipena. Bakarlari gisa zein hainbat abesbatzatako eta instrumentista taldeetako laguntzaile gisa aritzen da Frantzian eta Espainian.

Debutó a los 11 años en su pueblo natal de Ayherre (Baiona) y ha estudiado piano con Françoise Dechico y órgano con Esteban Landart. Obtuvo el primer premio fin de carrera por unanimidad y se inició en la práctica de la música antigua con Sebastián Wonner, estudiando clavecín, bajo continuo y conjunto instrumental. Desde septiembre de 2008 estudia órgano en el Conservatorio Superior de Música de París con Olivier Latry y Michel Bouvard e improvisación con Philippe Lefebvre. Compagina sus estudios con la titularidad como organista de la iglesia de San Vicente de Ciboure y es también cotitular de la Iglesia de Nuestra Dama de Vertus de la localidad de Aubervilliers. Actúa regularmente como solista y como acompañante de diferentes coros e instrumentistas tanto en Francia como en España.

10

UZTAILA, LARUNBATA
SÁBADO, JULIO

a las 20:00 etan

ALQHAI CONSORT**FAHMI ALQHAI**, ZANGO BIOLA/JOLEA / VIOLAGAMBISTA**RAMI ALQHAI**, ZANGO BIOLA/JOLEA / VIOLAGAMBISTA**ALBERTO MARTÍNEZ MOLINA**, ORGANO/JOLEA / ORGANISTA**ALQHAI CONSORT**

Alqhai Consort taldearen oinarriak Fahmi eta Rami Alqhai anaia eta zango-biola dira. Esan genezake, zalantza gehiegirik gabe, iberiar penintsulan ez dagoela era horretako beste talderik eta munduan zango-biolan espezializatutako bakarrenetakoa dela. Gauzak horrela, gure musika eskaintzan bikote hori da aparteko eta bereziarena.



Bi anaiek ospe handia dute Espainian eta Europan, zango-biola jotzaile gisa. Hala, Accademia del Piacere taldearekin eta beren Alqhai & Alqhai produkzio etxearekin zango-biolaren musika berreskuratzeko eta zabaltzeko lan handia egiten dute eta laguntzaileak gonbidatzen dituzte maiz; laguntzaile horiek, aldi bakoitzean, dagozkien egitarauak interpretatzeko prestatu egiten dira. Oraingoan, Alberto Martínez Molina gonbidatu dute, gaur egun organojole eta klabezinista hoberenetakoa den musikari gaztea.



Alqhai anaiek Europa osoan eman dituzte kontzertuak, areto nagusietan eta jaialdi garrantzitsuenetan, besteak beste honako hauetan: Auditorio Nacional de España (Madrid), Salle Gaveau (Paris), Palazzo del Quirinale (Erroma).

Alqhai Consort es un grupo basado en el dúo que forman los hermanos Fahmi y Rami Alqhai y focalizado básicamente en la interpretación del repertorio de la viola da gamba. Se podría afirmar con bastante certeza que el grupo es uno de los únicos en su género en la península ibérica y de los muy pocos especializados en la viola da gamba en el mundo, lo que hace del dúo una de las formaciones más particulares y especiales en la oferta musical de nuestros días.

Los dos hermanos, reconocidos violagambistas en España y en Europa, realizan juntos y con el grupo Accademia del Piacere y su productora Alqhai & Alqhai un reconocido trabajo de recuperación y difusión de la música de la viola da gamba e invitan asiduamente a colaboradores que completan en cada ocasión la formación para los diversos programas a interpretar. En esta ocasión invitan a Alberto Martínez Molina, uno de los mejores clavecinistas y organistas del momento. Los hermanos Alqhai han actuado juntos en toda Europa en las salas más importantes y los festivales más señeros, como el Auditorio Nacional de España (Madrid), la Salle Gaveau (Paris) o el Palazzo del Quirinale (Roma), por citar algunos ejemplos.

Trío Sonata nº 3 d-moll, BWV 527

JOHANN SEBASTIAN BACH (1685-1750)

*Andante**Adagio e Dolce**Vivace*

Preludio & Fuga c-moll, BWV 846

J. S. BACH

14 variaciones sobre un Aria, BWV 988
(Variaciones Goldberg)

J. S. BACH

Trío Sonata nº 6 G-dur, BWV 530

J. S. BACH

*Vivace**Lento**Allegro*

GABRIELA EIBENOVÁ, SOPRANO / SOPRANO
ADAM VIKTORA, ORGANOJOLEA / ORGANISTA

Tiento del Quinto Tono	ANTONIO DE CABEZÓN (1510-1566)
Spagnoletta	FABRITIO CAROSO (1526/1535 - 1605/1620)
Laudate Dominum	CLAUDIO MONTEVERDI (1567-1643)
Extractos de órgano de la colección de tablaturas	JOANNIS DE LUBLIN (S. XVI)
Extractos de la colección "Czech lute"	ADAM VÁCLAV MICHNA Z OTRADOVIC (1660-1676)
Extractos de órgano de la colección de tablaturas	J. DE LUBLIN (S. XVI)
Sub tuum praesidium	ALBERIK MAZÁK (1609-1661)
Corrente Italiana	JUAN CABANILLES (1644-1712)
Pianto della Madonna	GIOVANNI FELICE SANCES (1600-1679)
Tiento de 1º Tono de Mano Derecha	ANDRÉS DO SOLA (1634-1696)
Panis angelicus	FRANCESCO GASPARINI (1661-1727)
Battaglia	BERNARDO STORACE (1637-1707)
Salve Regina	PIETRO TERZIANI (1768-1816)

GABRIELA EIBENOVÁ



Gabriela Eibenová gaztea soprano bikaina da; Pragako kontserbatorioan graduatu zen 1993an. Gero Libuše Tomišková eta Magdalena Hajóssyováren ikasle izan zen Pragan eta Julie Kennard maisuarekin ikasi zuen Londresko Royal Academy of Music ikastegian. James Griffett tenorea ere izan zuen irakasle eta hark murgildu zuen antzinako musikaren munduan. Gainera, maisu eskolak jaso zituen Txekiar Errepublikan, Eslovakian, Britainia Handian, Alemanian eta Suedian. Gabriela jaialdi askotan ari da parte hartzen bakarlari moduan. Antzinako musika abesteko espezializatu denez gero, solista eta zuzendari ugariarekin aritu da lanean. Besteak beste honako hauekin: J. Griffett, I. Partridge, E. Tubb, M. Zanetti, M. Kožená, P. Kooij, E.L. Banzo, eta S. Standage. Horrez gain, Adam Viktoriarekin batera Inégal Ensemble sortu du. Antzinako musikako kontzertuak ez ezik, musika garaikidekoak ere eman ditu.

Joven y dotada soprano, Gabriela Eibenová se graduó por el Conservatorio de Praga en 1993. Posteriormente fue alumna de Libuše Tomišková y Magdalena Hajóssyová en Praga y estudió con el maestro Julie Kennard en la Royal Academy of Music de Londres. Su profesor y tenor James Griffett la introdujo en el mundo de la música antigua y también ha recibido clases maestras en la República Checa, Eslovaquia, Gran Bretaña, Alemania y Suecia. Tiene una gran actividad como cantante solista participando en muchos festivales, tanto en la República Checa como en otros países. Su especialización como intérprete de música antigua le ha hecho compartir escenarios con grandes ensembles, solistas y directores tales como J. Griffett, I. Partridge, E. Tubb, M. Zanetti, M. Kožená, P. Kooij, E. L. Banzo o S. Standage. Junto con Adam Viktora es fundadora de Inégal Ensemble. Además de su trabajo como intérprete de música antigua también ha ofrecido conciertos en el campo de la música contemporánea.

ADAM VIKTORA

Adam Viktora Pilsengo kontserbatorioan eta Pragako Musika Eskolan graduatu zen. Ondoren, Bere prestaketan garai horretan Tagliavini, Erickssohn, Koimann eta Haselböck izan zituen maisu besteak beste. Organista moduan eta abesbatza eta orkestra zuzendari gisa mundu osoko jaialdi ugarietan parte hartu du. Gainera, organoari buruzko hitzaldiak eman ditu Suedian eta Kroazian. Horrez gain, grabazio ugari egin ditu Txekiar Errepublikako irrati eta telebistarentzat. Musikaz gain, organo historikoak birgaitzea eta sustatzea ere interesatzen zaio. Alde horretatik, "Organoa Europako kultur ondare gisa" proiektuko kide aktiboenetako bat da eta Txekiar Errepublikako Organoaren Jaialdia zuzentzen du. 1998tik organo irakasle da Pilsengo kontserbatorioan eta 2007tik musika irakasle Pragakoan. Adam Viktora Esemble Inégal taldearen sortzailea eta zuzendaria da. Taldea, 2000. urtean sortu zenetik, instrumentu eta ahots talde arrakastatsu bihurtu da.



Adam Viktora se graduó en la Academia de Música de Praga y posteriormente siguió recibiendo formación y clases magistrales de maestros como Tagliavini, Erickssohn, Koimann y Haselböck. Como organista

y director de coro y orquesta ha participado en numerosos festivales alrededor de todo el mundo. Ha ofrecido conferencias en congresos de órgano en Suecia y Croacia y ha realizado numerosas grabaciones para la Radio y Televisión Checa. Parte de su interés se centra en la restauración y promoción de órganos históricos. Es conocido como uno de los más activos en el proyecto "El órgano como patrimonio cultural europeo" y es asimismo director del Festival Checo de Órgano. Desde 1998 es profesor de órgano en el Conservatorio de Pilsen y desde 2007 es profesor de música en el Conservatorio de Praga. Es el fundador y director de Inégal Ensemble, que desde su fundación en 2000 se ha convertido en un exitoso grupo instrumental y vocal que ha despertado el interés del público y la crítica especializada tanto en sus grabaciones como en su participación en importantes auditorios y festivales.

ORGANOARI BURUZ SOBRE EL ÓRGANO


San Martingo Tours elizan dago kokatua. Aspaldiko urteotan hain ospetsu egin den organo hau 1761ean Lorenzo de Arrazola oinatiarrak egindakoa da. Azkeneko berrikuntzen ondoren (1996), Gipuzkoako zaharrenetako eta ederrenetakotzat jota dago.

Gipuzkoa osoan 150 organo daude gutxi gorabehera, gehienak XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren haseran egindakoak. Dena den, barroko estiloko gutxi batzu ere badira, “organo iberikoak”

deiturikoak, XVIII. mendean Espainia, Portugal eta Hegoamerikan zeudenen antzekoak direlako beren oinarritzko ezaugarrietan. Horrelako zazpi organo daude Gipuzkoan eta horietatik Ataungoa, balio historiko-artistiko handienetako organoa da. Urtean zehar kontzertuak antolatzen dira. Hauetatik ospetsuena Barroko Aire Musikaldikoa. Honezaz gain, 4 diska ere grabatu dira bertan: Esteban Elizondo (Titanic Records, 1981 eta Motette, 1997), León Berben (Aeolus, 2007) eta Elena López Jauregui eta Norberto Broggini (Verso, 2008). Informazio gehiago www.ataun.net web orrialdean.

Está ubicado en la Iglesia de San Martín de Tours. Este órgano que se ha hecho famoso desde hace bastantes años, lo construyó el oinatiarra Lorenzo de Arrazola en el año 1761. Después de su última reforma en 1996, está considerado cómo uno de los más antiguos y hermosos de Gipuzkoa.

En toda Gipuzkoa hay 150 órganos más o menos, la mayoría contruidos a finales del siglo XIX y a principios del siglo XX. De todas formas, aunque pocos son del estilo barroco, los llamados “órganos ibéricos”, se asemejan por sus características básicas a los que había en España, Portugal y Sudamérica en el siglo XVIII. De este tipo de órganos existen siete en Gipuzkoa, entre ellos el de Ataun, que es un órgano de gran valor histórico artístico. A lo largo del año se organizan diferentes conciertos. De todos ellos los más famosos son los correspondientes al Festival de Música de Aires Barroco. A raíz de estos conciertos se han grabado 4 discos: Esteban Elizondo (Titanic Records, 1981 y Motette, 1997), León Berben (Aeolus, 2007) y Elena López Jauregui y Norberto Broggini (Verso, 2008). Para más información consulten la página web www.ataun.net.




NOLA HELDU CÓMO LLEGAR

Ataun, Gipuzkoako hegoaldean dago kokatua, Goierri bailaran. Nafarroarekin muga egiten du eta Aralar Parke Naturalaren barruan dago.

Bertaratzeko dauden aukera desberdinen artean azpimarratu: Autobus zerbitzuak, Goierrialdea S.L. (943 885969), La Estellesa S.L. (943 470115) eta Transportes Pesa S.A. (902 101210) dira. Autoz, GI-120 bidea hartuz (Beasain-Etxarri Aranatz). Trenez, Beasaingo eta Ordiziako tren geltokiak herritik 5 kmra daude eta Goierrialdea autobus zerbitzuarekin lotuak.

Ataun está situada en la parte sur de Guipúzcoa, en el valle del Goierri. Tiene frontera con Navarra y en su interior se encuentra el Parque Natural de Aralar.

Entre la selección de los distintos medios que hay para llegar destacan: los servicios de autobús, Goierrialdea S.L. (943 885969), La Estellesa S.L. (943 470115) y Transportes Pesa S.A. (902 101210). En coche por la carretera GI-120 (Beasain-Etxarri Aranatz). En tren desde las estaciones de Beasain y Ordizia a 5 km y enlace con los servicios de autobuses de Goierrialdea.





www.ataun.net

ANTOLATZAILEA



ATAUNGO UDALA

LAGUNTZAILEAK

